



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko azaroaren 10a

128. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

- Foru Lege proiektua, Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epea luzatzea (3. or.).
- Foru Lege proiektua, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzen duena. Zuzenketak aurkezteko epea luzatzea (3. or.).

#### E SAILA:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuk poza adierazten du Venezuelako Bolivartar Errepublikako Gobernuak eta Venezuelako Plataforma Bateratuak erdietsi dituzten akordioengatik. Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzordeak onetsia (4. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Diabetesaren Mundu Egunaren ospakizunarekin. Eledunen Batzarrak onetsia (5. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Galdera, etxebizitza-erakinetako irisgarritasunerako Europatik jasotako funtsei buruzkoa. María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak egin du (6. or.).
- Galdera, Nafarroako Osasun Zerbitzuan haurren “ictus kodea” ezartzeari buruzkoa. Patricia Fanlo Mateo andreak egin du (6. or.).
- Galdera, Osasuneko kontseilariak COVID-19aren aurkako txerto desberdinen eraginkortasunari eta COVID-19az kutsaturiko pertsona arrisku-faktore eta -patologiadunengan izandako emaitzen gaineko informazio-eskaerei ez erantzuteari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (7. or.).
- Galdera, energia-erkidegoei buruzko Europako I. Kongresuaren helburuei buruzkoa. Mikel Asiain Torres jaunak egin du (8. or.).
- Galdera, klima-aldaketari eta Energiari buruzko Elkarriketa-mahaiei buruzkoa. Mikel Asiain Torres jaunak egin du (9. or.).

- Galdera, zainketen gaineko Foru Itunari buruzkoa. Patricia Perales Hurtado andreak egin du (10. or.).
- Galdera, Foruzaingoaren ordutegien, lanaldien eta ordainsarien erregelamenduari buruzkoa. José Suárez Benito jaunak egin du (10. or.).
- Galdera, lehengaien prezioa igotzeak eragindako krisiari aurre egiteko strategiari buruzkoa. Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak egin du (11. or.).
- Galdera, Nafarroako udalekiko kultur politiken arloko koordinazio eta ardurakidetzaren foroaren deialdiei buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (11. or.).
- Galdera, euskaraz ikastea bultzatzeko estrategia iraunkorrak garatzeari buruzkoa. Iñaki Iriarte López jaunak egin du (12. or.).
- Galdera, Nafarroako Ubidearen 2. fasearen eraikuntza-proiektuari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (12. or.).
- Galdera, Nafarroaren fiskalitateari eta lehiakortasunari buruzkoa. María Jesús Valdemoros Erro andreak egin du (13. or.).
- Galdera, ustezko eskumen-talkei buruzkoa, Estatuko etxebizitzari buruzko lege berria dela-eta. Mikel Buil García jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, Nafarroaren isurketa-maila Europaren klima arloko helburuetara egokitzeko neurriei buruzkoa. Laura Aznal Sagasti andreak egin du (14. or.).
- Galdera, Europako Funtsak “nahierara” banatzeagatik Madrilgo Erkidegoak iragarritako errekursoari buruzkoa. Uxue Barkos Berruezo andreak egin du (14. or.).
- Galdera, hiriburutza agiriak kentzeari buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (15. or.).
- Galdera, Nafarroako Aurrekontu Orokorrek lagunduta ekonomia suspertzeari eta krisitik irteteari buruzkoa. Ramón Alzórriz Goñi jaunak egin du (15. or.).
- Galdera, COVID-19aren kutsatze-kasuen balizko olatu bati eta prebentzio-neurriei buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (16. or.).

#### G SAILA:

##### **Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Bitartekaritza nahiz beste gatazka-ebazpenerako teknika eta bide batzuk aztertzearen Ponentzia. Barne-funtzionamendurako arauak (17. or.).
- Nafarroako Parlamentuaren Erregelamendua egokitzeko ponentzia. Bere lanak bukatzeko epea luzatzea (18. or.).
- Sergio Zozaya Garralda jauna Zerbitzu Orokorretako buru izendatzea (18. or.).
- María Asunción Marzal Parra andrea Informatikako, Ikus-entzunezkoen Sistemetakoko eta Teknologiako Zerbitzuko buru izendatzea (19. or.).
- Laura Vidán Astiz andrea Kontu-hartzailetza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buru izendatzea (19. or.).
- Mikel Iriarte Cilveti jauna Argitalpen, Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazio Zerbitzuko buru izendatzea (20. or.).
- Nafarroako Parlamentuko legelari nagusiaren 39/2021 Ebazpena, azaroaren 8koa, zeinaren bidez kargutik kentzen baita Zerbitzu Orokorretako burua aldi baterako ordeztzen ari den teknikaria (20. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **Foru Lege proiektua, Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzkoa.**

### **ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 8an egindako bilkuran, honao erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea **2021eko azaroaren 22ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Aipatu foru lege proiektua 2021eko irailaren 20ko 105. Nafarroako Parla-

mentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-21/LEY-00006).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko azaroaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

## **Foru Lege proiektua, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzen duena.**

### **ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 8an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea **2021eko azaroaren 22ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Aipatu foru lege proiektua

2021eko irailaren 20ko 105. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-21/LEY-00007).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko azaroaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuk poza adierazten du Venezuelako Bolibartar Errepublikako Gobernuak eta Venezuelako Plataforma Bateratuak erdietsi dituzten akordioengatik.**

*BIZIKIDETASUNAREN ETA NAZIOARTEKO ELKARTASUNAREN BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzordeak, 2021eko azaroaren 3an egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: "Nafarroako Parlamentua poza adierazten du Venezuelako Bolibartar Errepublikako Gobernuak eta Venezuelako Plataforma Bateratuak erdietsi dituzten akordioengatik".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

"1. Nafarroako Parlamentua poztu egiten da Venezuelako Bolibartar Errepublikako Gobernuak eta Venezuelako Plataforma Bateratuak akordioak erdietsi dituztelako. Akordio horiek lehenesten dute Venezuelako herritarren ongizatea arreta gunean jartzeko beharra, bai eta Venezuelako

herritarren gizarte-babeserako neurriak hartzeari ere.

2. Nafarroako Parlamentuak balioan jartzen du Venezuelari buruzko Elkarrizketa eta Negoziazio Prozesuaren Mahaia. Horren haritik, aldeak animatzen ditu hasitako prozesuari jarraipena eman diezaioten, Venezuelako herriaren subiranotasun aldezteko elkar ulertzeko bide gisa, herrialdearen aniztasun soziopolitikoa aintzat hartuta.

3. Nafarroako Parlamentuak eskerrak ematen dizkie Mexikoko, Norvegiako, Herbehereetako eta Errusiako gobernuei, negoziazio prozesu hau erraztu eta laguntzeagatik".

Iruñean, 2021eko azaroaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Diabetesaren Mundu Egunaren ospakizunarekin.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2021eko azaroaren 8an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Diabetesaren Mundu Egunaren ospakizunarekin, eta urdinez argiztatuko du bere egoitzaren fatxada heldu den azaroaren 14an.

2. Nafarroako Parlamentuak ANADIrekin batera ekitaldi bat egingen du Parlamentuko atalondogan, azaroaren 12an.

3. Nafarroako Parlamentuak erakunde eskudunak premiatzen ditu diabetes gaixotasunari aurrea hartzeko politikak sustatzen jarrai dezaten.

4. Nafarroako Parlamentuak beharrezkotzat jotzen du gaixoen eta profesionalen diabetes arloko prestakuntza eta hezkuntza areagotzeko neurriak sustatzea.

5. Nafarroako Parlamentuak uste du beharrezkoa dela diabetesaren ikusgaitasuna sustatzea, eta aldeztu egiten ditu ANADIk Diabetesaren Mundu Eguna dela-eta antolatu dituen jarduerak”. (10-21/DEC-00068).

Iruñean, 2021eko azaroaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

## **Galdera, etxebizitza-erakinetako irisgarritasunerako Europatik jasotako funtsei buruzkoa.**

*MARÍA ARANZAZU BIURRUN URPEGUI ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak etxebizitza-erakinetako irisgarritasunerako Europatik jasotako funtsei buruz aurkeztutako galdera.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko azaroaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Arantza Biurrun Urpegui andre-

ak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio bigarren lehendakariorde eta Lurralde Antolamenduko, etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

“Espainia, herri irisgarria” planari jarraikiz, Espainiako Gobernuak 637.548 euro eman dizkio Nafarroako Foru Komunitateari Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren baitan, inguruneak eraldatzeko oinarriak ezartzeko xedez, halako moduan non pertsona guztiak, salbuespenik gabe, ibili ahal izanen baitira horietan barrena.

Zure departamentuak nola antolatuko ditu etxebizitzetako irisgarritasun-obretarako Estatuak emandako funtsak?

Iruñean, 2021eko azaroaren 2an

Foru parlamentaria: Arantza Biurrun Urpegui

## **Galdera, Nafarroako Osasun Zerbitzuan haurren “ictus kodea” ezartzeari buruzkoa.**

*PATRICIA FANLO MATEO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Patricia Fanlo Mateo andreak Nafarroako Osasun Zerbitzuan haurren “ictus kodea” ezartzeari buruz aurkeztutako galdera.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2021eko azaroaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Patricia Fanlo Mateok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Osasuneko kontseilariak batzordean ahoz erantzun diezaion:

Espainiako beste ospitale batzuen ereduari jarraikiz –Bartzelonako Vall D’Hebron edo Madrilko Gregorio Marañón, kasu– Nafarroako Uniber-

tsitate Ospitaleak orain dela zenbait hilabete jarri zuten abian hartutako kalte zerebrala Nafarroako Foru Komunitateko haurren artean mozteko protokoloa.

Haurren ‘ictus kodea’ izenez ezagutzen dena nola ari da ezartzen eta zer emaitza ari da izaten Nafarroako Osasun Zerbitzuan?

Iruñean, 2021eko azaroaren 2an

Foru Parlamentaria: Patricia Fanlo Mateo

**Galdera, Osasuneko kontseilariak COVID-19aren aurkako txerto desberdinen eraginkortasunari eta COVID-19az kutsaturiko pertsona arrisku-faktore eta -patologiadunengan izandako emaitzen gaineko informazio-eskaerei ez erantzuteari buruzkoa.**

*CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkeztutako galdera, Osasuneko kontseilariak COVID-19aren aurkako txerto desberdinen eraginkortasunari eta COVID-19az kutsaturiko pertsona arrisku-faktore eta -patologiadunengan izandako emaitzen gaineko informazio-eskaerei ez erantzuteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko azaroaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak ez die erantzun COVID-19aren aurkako txerto desberdinen eraginkortasuna eta COVID-19az kutsaturiko pertsona arrisku-faktore eta -patologiadunengan izandako emaitzak direla-eta (ospitaleratze-, ZIU- nahiz heriotza-tasak) parlamentari honek egin dituen informazio-eskariei. Zergatik?

Iruñean, 2021eko azaroaren 3an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

## **Galdera, energia-erkidegoei buruzko Europako I. Kongresuaren helburuei buruzkoa.**

*MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak energia-erkidegoei buruzko Europako I. Kongresuaren helburuei buruz aurkeztutako galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko azaroaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Asiain Torres jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Azaroaren 16an eta 17an Energia-erkidegoei buruzko Europako Kongresua egingen da Iruñean. Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuak antolatutako kongresu hori ekimen aitzindaria izanen da Estatuan. Gure ustez, funtsezkoa da herritarren artean kultura energetiko berri bat sustatzea, bidenabar bultzatuz pertsonen aktiboki parte hartu ahal izatea, zenbait modutan parte hartu ere, energiaren arloan: energia-erkidego batekin bat eginez, horretan inbertituz ala nor-

berarena sortuz. Trantsizio energetikoaren esparruan, teknologia berriek herritarren ahalduntzea ahalbidetzen dute, bai eta "protsumitzaile" (produktorea eta kontsumitzailea aldi berean) eginkizuna betetzea ere, halako moduan non autonomia energetikoa izanen duen eta, hartara, sistema energetikoa eraldatzen eta erregai fosilekiko mendeotasuna murrizten lagunduko duen.

Autokontsumo indibidualak eta energia-erkidegoek zeresan handia daukate Europak 2030erako eta 2050erako ezarritako deskarbonizazio-helburuak lortzeko bidean (Nafarroak bere egin ditu helburu horiek). Banaketa-ereduak eredu zentralizatuaren eskutik joan behar du, Administrazioak bultzatuta eta haren gidaritzapean, sektore pribatuarekiko lankidetzan ezinbestez. Bi eredu horiek, kontrakoa hedatzen dutenez diotenaz bestela, nahitaezkoak dira, eta osagarriak. Horren adibide argia dugu hemen alboan, Alemanian.

Hori horrela, energia-erkidegoak sektore publikoen eta pribatuen lan komunaren eta bateratzearen adibide on bat dira, eta eginkizun funtsezko bat dute energia berriztagarrien sustapenean, toki entitateen parte-hartzearekin, nahitaezkoa baita.

Hori dela-eta, honako galdera hau egiten dugu:

Zer helburu lortu nahi da Iruñean Energia-erkidegoei buruzko Europako Kongresua antolatzeari? Zer ekarriko dio gure erkidegoari?

Iruñean, 2021eko azaroaren 4an

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres



## **Galdera, klima-aldaketari eta Energiari buruzko Elkarrizketa-mahaiei buruzkoa.**

*MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak klima-aldaketari eta Energiari buruzko Elkarrizketa-mahaiei buruz aurkeztutako galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko azaroaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Asiain Torres jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilari Mikel Irujok Klima-aldaketari eta Energiari buruzko Elkarrizketa-mahaia itxi zuen Iruñean urriaren 14an. Mahai hori parte-hartze prozesu bat izan da, foru erkidegoan trantsizio energetikoko inplikaturako eragile guztien ikuskerak bateratzeko xedez.

Halatan, ekainetik urrira bitarte zenbait topaketa eta elkarrizketa-mahai egin dira, eta bertan parte hartu dute zenbait erakunde eta entitatetako 32 pertsonak. Horren ondorioz, ideia-trukaketa bat

egin da, mintzakide guztien arteko lankidetzan, entzute aktiboan eta parte-hartzaileen ideiekiko errespetuan oinarrituta, erdigunean jarrita Nafarroak energia-hornikuntzari dagokionez daukan beharrezana, berotegi-efektuko gasen isurketen murrizketa eta Parisko Akordioan hartutako konpromiso eta helburuen betetzea.

Lehendabiziko saioan –ekainaren 10ean egin zen–, Nafarroa honako hiru arlo hauetan zertan den aztertu zen: klima-aldaketa, deskarbonizazioa eta elektrifikazioa. Honako hauek parte hartu zuten: IDAE-Energia Dibertsifikatu eta Aurrezteko Institutuko Energia Berriztagarrien eta Elektrizitate-merkatuko zuzendari Víctor Marcosek, Arabako diputatu eta Trantsizio Ekologikoaren Batzordeko buru Juantxo López de Uraldek, eta CSIC-Physical & Technological Oceanography Department / Barcelona Expert Center, Institut de Ciències del Mar -CMIMAKo Antonio Turieles. Topaketa horietan parte hartu behar zuten sektore instituzional eta sozialen aniztasunaren lehen erakuskerak bat izan zen, bai eta aurretik dauzkagun garai hauetan eztabaida publikoaren ardatz nagusietako bat izanen den auzi horretan izan beharreko ikuskera zabalarena ere.

Hori dela-eta, ahozko galdera hau aurkezten da:

Zer balorazio egiten duzu mahai horretan egindako lanaz eta hasieran planteatutako helburuei dagokienez parte-hartzaileek eginiko ekarpenez?

Iruñean, 2021eko azaroaren 4an

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

## **Galdera, zainketen gaineko Foru Itunari buruzkoa.**

*PATRICIA PERALES HURTADO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Perales Hurtado andreak zainketen gaineko Foru Itunari buruz aurkeztutako galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko azaroaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Patricia Perales Hurtado andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilari Javier Remírez Apesteguía jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

- Zer denbora-plangintza egiten duzu Zainketen Foru Planaren garapenari dagokionez? Zertan da une honetan?

Iruñean, 2021eko azaroaren 4an

Foru Parlamentaria: Patricia Perales Hurtado

## **Galdera, Foruzaingoaren ordutegien, lanaldien eta ordainsarien erregelamenduari buruzkoa.**

*JOSÉ SUÁREZ BENITO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Suárez Benito jaunak aurkeztutako galdera, Foruzaingoaren ordutegien, lanaldien eta ordainsarien erregelamenduari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko azaroaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen José Suárez Benito jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zertan da Foruzaingoaren ordutegien, lanaldien eta ordainsarien erregelamendua egiteko prozesua? Zer balorazio egiten duzu horri buruz, Nafarroako Gobernuako lehendakaria zaren aldetik?

Iruñean, 2021eko azaroaren 4an

Foru parlamentaria: José Suárez Benito

## **Galdera, lehengaien prezioa igotzeak eragindako krisiari aurre egiteko estrategiari buruzkoa.**

*CARLOS PÉREZ-NIEVAS LÓPEZ DE GOICOECHEA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak aurkeztutako galdera, lehengaien prezioa igotzeak eragindako krisiari aurre egiteko strategiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko azaroaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 190, 191 eta 192. artikuluetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Gobernuko lehen-dakariak ahoz erantzun dezan:

Zure Gobernuak zer estrategia aldeztu du lehengaien prezioa igotzeak eragindako krisiari, zeinaren ondorioz modu kezagarrian igotzen baitira elektrizitatearen prezioa eta geldiarazten baitira gure erkidegoko energia-enpresak, aurre egiteko?

Iruñean, 2021eko azaroaren 4an

Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

## **Galdera, Nafarroako udalekiko kultur politiken arloko koordinazio eta ardurakidetzaren foroaren deialdiei buruzkoa.**

*RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako udalekiko kultur politiken arloko koordinazio eta ardurakidetzaren foroaren deialdiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Kultura eta Kiroleko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2021eko azaroaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Kultura eta Kiroleko kontseilariak Kultura eta Kiroleko Batzordearen hurrengo bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zure ustez, behar adin aldiz deitu al da Nafarroako udalekiko kultur politiken arloko koordinazio eta ardurakidetzaren foroa?

Iruñean, 2021eko azaroaren 4an

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

## **Galdera, euskaraz ikastea bultzatzeko estrategia iraunkorrek garatzeari buruzkoa.**

*IÑAKI IRIARTE LÓPEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Iñaki Iriarte López jaunak aurkeztutako galdera, euskaraz ikastea bultzatzeko estrategia iraunkorrek garatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko azaroaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikitako Iñaki Iriarte Lópezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Gobernuak zer dela-eta uste du "euskaraz ikastea eta, bereziki Nafarroa hegoaldean, Haur Hezkuntzan euskara ikastea bultzatzeko estrategia iraunkorrek garatu" beharra dagoela?

Iruñean, 2021eko azaroaren 4an

Foru parlamentaria: Iñaki Iriarte López

## **Galdera, Nafarroako Ubidearen 2. fasearen eraikuntza-proiektuari buruzkoa.**

*MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak Nafarroako Ubidearen 2. fasearen eraikuntza-proiektuari buruz aurkeztutako galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko azaroaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikitako Miguel Bujanda Cirauquik, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Ubidearen bigarren fasearen eraikuntza-proiektua 2021a bukatu aitzin amaituta egonen delako aurreikuspenari eusten al diozu?

Iruñean, 2021eko azaroaren 4an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

## **Galdera, Nafarroaren fiskalitateari eta lehiakortasunari buruzkoa.**

*MARÍA JESÚS VALDEMOROS ERRO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Jesús Valdemoros Erro andreak Nafarroaren fiskalitateari eta lehiakortasunari buruz aurkeztutako galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko azaroaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari María Jesús Valdemoros andreak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehen-dakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zure ustez, Barkos andrearen Gobernuak garatutako fiskalitateari eusteak lehiakor egiten al du gure erkidegoa?

Iruñean, 2021eko azaroaren 4an

Foru parlamentaria: María Jesús Valdemoros

---

## **Galdera, ustezko eskumen-talkei buruzkoa, Estatuko etxebizitzari buruzko lege berria dela-eta.**

*MIKEL BUIL GARCÍA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Buil García jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, ustezko eskumen-talkei buruzkoa, Estatuko etxebizitzari buruzko lege berria dela-eta.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko azaroaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Mikel Buil García jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Lurralde Antolamenduko, etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariak azaroaren 11ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer eskumen-talkaz ari da etxebizitzako kontseilaria, Estatuko etxebizitzari buruzko lege berriaz ari denean?

Iruñean, 2021eko azaroaren 8an

Foru parlamentaria: Mikel Buil García

## **Galdera, Nafarroaren isurketa-maila Europaren klima arloko helburuetara egokitzeko neurriei buruzkoa.**

*LAURA AZNAL SAGASTI ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Laura Aznal Sagasti andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroaren isurketa-maila Europaren klima arloko helburuetara egokitzeko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko azaroaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Laura Aznal Sagasti

andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilari Itziar Gómez Lópezek azaroaren 11ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Asteburu honetan, Nazio Batuek antolatuta Glasgown egiten ari den COP 26-Klima Aldaketari buruzko Mundu Konferentziara joan da Nafarroako ordezkari bat, Chivite lehendakaria buru, klimaren gaineko bere konpromisoa berresteko nazioarteko foroetan. Horri buruz, parlamentari honek ondoko galdera egin du:

- Nafarroako Gobernuak zer neurri hartuko du Nafarroaren isurketa-maila Europaren klima arloko helburuetara egokitzeko?

Iruñean, 2021eko azaroaren 7an

Foru parlamentaria: Laura Aznal Sagasti

## **Galdera, Europako Funtsak “nahierara” banatzeagatik Madrilgo Erkidegoak iragarritako errekurtsioari buruzkoa.**

*UXUE BARKOS BERRUEZO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Uxue Barkos Berruezo andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Europako Funtsak “nahierara” banatzeagatik Madrilgo Erkidegoak iragarritako errekurtsioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko azaroaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioko kide Uxue Barkos Berruezo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak heldu den azaroaren 11ko Legebiltzarraren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Madrilgo Erkidegoak iragarri du errekurtsioa aurkeztuko duela Konstituzio Auzitegian, “nahierara” banatzeagatik –besteak beste, Nafarroari– Europako Funtsak. Nafarroako Gobernuko lehendakariak zer balorazio egiten du iragarpen horretaz?

Iruñean, 2021eko azaroaren 8an

Foru parlamentaria: Uxue Barkos Berruezo

## **Galdera, hiriburutza agiriak kentzeari buruzkoa.**

*JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak hiriburutza agiriak kentzeari buruz aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko azaroaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioaren eledun Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran erantzun dezan:

Hiriburutza agiriak kentzean, Nafarroako Gobernuak Iruña zigortzen du, eta Tuterari agindutakoa –legegintzaldi honetan hiriburutza agiria izanzen zuela– huts egiten du. Zergatik kendu dira, hortaz, hiriburutza agiriak?

Iruñean, 2021eko azaroaren 8an

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

---

## **Galdera, Nafarroako Aurrekontu Orokorrek lagunduta ekonomia suspertzeari eta krisitik irteteari buruzkoa.**

*RAMÓN ALZÓRRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzórriz Goñi jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako Aurrekontu Orokorrek lagunduta ekonomia suspertzeari eta krisitik irteteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko azaroaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ramón Alzórriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamendua ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak 2021eko azaroaren 11ko Osoko Bilkuran erantzun dezan.

2022rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrek zertan lagunduko dute ekonomia suspertzeari begira eta krisiari bidezko irtenbide bat emateari begira?

Iruñean, 2021eko azaroaren 8an

Foru parlamentaria: Ramón Alzórriz Goñi

## **Galdera, COVID-19aren kutsatze-kasuen balizko olatu bati eta prebentzio-neurriei buruzkoa.**

*MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, COVID-19aren kutsatze-kasuen balizko olatu bati eta prebentzio-neurriei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko azaroaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko parlamentari Marisa De Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasuneko galdera hau egiten du, Parlamentu honen hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion.

Osasun arloko azken datuak ikusita, COVID-19aren kutsatze-kasuen balizko olatu baten aitzinean,

Osasun Departamentuak zer analisi egin du COVID-19aren kutsatze-kasuen balizko olatu baten arriskuaren aitzinean eta zer prebentzio-neurri aurreikusi ditu?

Iruñean, 2021eko azaroaren 8an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero



---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Bitartekaritza nahiz beste gatazka-ebazpenerako teknika eta bide batzuk aztertzeko Ponentzia.**

### **BARNE-FUNTZIONAMENDURAKO ARAUAK**

Legebiltzarreko Erregelamenduaren 114. artikuluan ezarritakoa betez agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen "Bitartekaritza nahiz beste gatazka-ebazpenerako teknika eta bide batzuk aztertzeko Ponentzia"ren barne-funtzionamenduko arauak. Arau horiek ponentziak berak onetsi zituen 2021eko azaroaren 3an egindako bileran. Hona arauen testua:

#### **"Lehena.**

Ponentziaren xedea da eremu judizialean eta estrajudizialean bitartekaritza nahiz beste gatazka-ebazpenerako teknika eta bide batzuk aztertea, nafar herritarren premien arabera izan den berezko eredu bat garatu eta sustatzeko.

Ondorioak txosten batean jasoko dira, zeina Legebiltzarreko Mahaiari igorriko baitzaio, aurkez litezkeen boto partikularrekin batera, eta Mahaiak Batzordeko kideei bidaliko die, eztabaidatu eta bozkatzeko.

**Bigarrena.** Hona ponentzia osatuko duten foru parlamentarien zerrenda:

Jorge Esparza Garrido jauna  
(Navarra Suma).

Ordezkoa: Maribel García Malo andrea.

María Virginia Magdaleno Alegría andrea  
(Nafarroako Alderdi Sozialista).

Ordezkoa: María Aranzazu Biurrun Urpegui andrea.

Blanca Isabel Regúlez Álvarez andrea  
(Geroa Bai).

Ordezkoa: Isabel Aramburu Bergua andrea.

Arantxa Izurdiaga Osinaga andrea  
(EH Bildu Nafarroa).

Ordezkoa: Patricia Perales Hurtado andrea.

Ainhoa Aznárez Igarza andrea  
(Podemos Ahal Dugu Nafarroa).

Ordezkoa: Mikel Buil García jauna.

María Luisa De Simón Caballero andrea  
(Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoa).

**Hirugarrena.** Ponentziak lehendakaria hautatu du, eta, kasua bada, ponentziako beste kide batek ordeztu ahalko du hura. Ponentziako idazkari-lanetan jardunen da ponentziari laguntzen dion legelaria, edo haren ordezkoa.

**Laugarrena.** Ponentziak boto ponderatuaren sistemaren bidez hartuko ditu erabaki guztiak. Horrela, ponentziako eledun-kide bakoitzaren talde parlamentarioak edo foru parlamentarien elkarteak zenbat foru parlamentari dituen, horrenbeste boto edukiko ditu eledun-kide horrek ponentzian.

**Bosgarrena.** Ponentziak laguntza eta lankidetzatza eskatu ahalko dio Nafarroako Gobernuari, eta, Legebiltzarreko Lehendakariaren bidez, kargu eta funtzionario eskudunak ponentziara etor daitezkeen eskatu ahalko du, edo beharrezkoak diren txostenak egin daitezkeen. Orobat eskatu ahalko du arloko beste aditu batzuk ere etor daitezkeen.

**Seigarrena.** Ponentziako kideen gehiengoak hala erabakitzen badu, ponentzian eginen diren agerraldiak hedabideei irekiak eta ikus-entzunezko bitartekoak erabiliz erretransmitituak izanen dira. Pertsona edo entitate pribatuen kasuan, galdetu beharko zaie ea onartzen duten agerraldia egitea, eta haien mintzaldia publikoa egitea ere. Bilera hauek ponentziako lehendakariaren zuzendaritzapean eginen dira. Hark, bilera-eskatzailaren mintzaldiaren ondoren, agerraldia egin behar duenari emanen dio hitza, eskaturiko gaiari buruzko informazioa azal dezan, gehienez ere hogeita hamar minutuz. Ondoren, ponentziako kideek izanen dute hitza, galderak egin edo haien jarrera azaltzeko, gehienez ere hamar minutuz. Bilera bukatuko da agerraldira etorritakoaren erantzunarekin, zeina hamar minutukoa izanen baita gehienez. Parte-hartzaileraren batek hala eskaturik, lehendakariak galdera edo oharretarako

beste txanda bat ireki ahalko du. Horiek egiteko bost minutu edukiko dituzte.

**Zazpigarrena.** Ponentziak lanerako plana ezarriko du, non bere lanak behar bezala egiteko beharrezkotzat jotzen dituen agerraldi eta jarduerak finkatuko dituen. Plan horren berri emanen zaio Legebiltzarreko Mahaiari.

**Zortzigarrena.** Ponentziak agindu zaion lana bukatu arte eginen du lan, eta lan hori ponentziaren eraketatik sei hilabeteko epean bukatu beharko du. Epe hori luzatzen ahalko da. Ponentziak berak onesten dituen luzapenak Parlamentuko Mahaiari jakinaraziko zaizkie, horien berri izan dezan.

**Bederatzigarrena.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea".

Iruñean, 2021eko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

## Nafarroako Parlamentuaren Erregelamendua egokitzeko ponentzia.

### *BERE LANAK BUKATZEKO EPEA LUZATZEA*

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamendua egokitzeko ponentziak, Erregelamendu Batordearen baitan eratuak, 2021eko urriaren 29an egindako bileran, honako erabaki hauek hartu zituen:

**Lehena.** Nafarroako Parlamentuko Mahaiari eta Eledunen Batzarrari jakinaraztea Nafarroako Parlamentuaren Erregelamendua egokitzeko ponentziak ezin izanen dituela bere lanak aurre-

kusitako epean bukatu. Hori dela eta, sei hilabeteko luzapen bat eskatzen du, 2022ko maiatzaren 23ra arte.

**Bigarrena.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2021eko urriaren 29an

Ponentziako lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

## Sergio Zozaya Garralda jauna Zerbitzu Orokorretako buru izendatzea.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 8an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko administrazioaren antolaketari buruzko Erregelamenduaren 18.1 artikulua xedatzen du Nafarroako Parlamentuko Mahaiak libreki izendatuko duela Zerbitzu Orokorretako burua, Lehendakariak proposatuta, teknikari lanpostua betetzen duten Parlamentuko funtzionarioen artean.

Hori dela eta, Nafarroako Parlamentuko Lehendakariak proposatuta, hauxe ERABAKI DA:

**1.** Sergio Zozaya Garralda jauna Zerbitzu Orokorretako buru izendatzea.

**2.** Erabaki hau interesdunari jakinaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko azaroaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **María Asunción Marzal Parra andrea Informatikako, Ikus-entzunezkoen Sistemetako eta Teknologiako Zerbitzuko buru izendatzea.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 8an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko administrazioaren antolaketari buruzko Erregelamenduaren 34.1 artikulua xedatzen du Nafarroako Parlamentuko Mahaiak libreki hautatuko duela, lehendakariak proposatuta, Informatikako, Ikus-entzunezkoen Sistemetako eta Teknologiako Zerbitzuko burua, teknikari lanpostua betetzen duten Parlamentuko funtzionarioen artean.

Hori dela eta, Nafarroako Parlamentuko Lehendakariak proposatuta, hauxe ERABAKI DA:

1. María Asunción Marzal Parra andrea Informatikako, Ikus-entzunezkoen Sistemetako eta Teknologiako Zerbitzuko buru izendatzea.

2. Erabaki hau interesdunari jakinaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko azaroaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

## **Laura Vidán Astiz andrea Kontu-hartzailatza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buru izendatzea.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 8an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko administrazioaren antolaketari buruzko Erregelamenduaren 25.1 artikulua xedatzen du Nafarroako Parlamentuko Mahaiak libreki hautatuko duela, Lehendakariak proposatuta, Kontu-hartzailatza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko burua, teknikari lanpostua betetzen duten Parlamentuko funtzionarioen artean.

Hori dela eta, Nafarroako Parlamentuko Lehendakariak proposatuta, hauxe ERABAKI DA:

1. Laura Vidán Astiz andrea Kontu-hartzailatza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buru izendatzea.

2. Erabaki hau interesdunari jakinaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko azaroaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **Mikel Iriarte Cilveti jauna Argitalpen, Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazio Zerbitzuko buru izendatzea.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 8an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko administrazioaren antolaketari buruzko Erregelamenduaren 23.1 artikulua xedatzen du Nafarroako Parlamentuko Mahaiak libreki izendatuko du, Lehendakariak proposatuta, Argitalpen, Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazio Zerbitzuko burua, teknikari lanpostua betetzen duten Parlamentuko funtzionarioen artean.

Hori dela eta, Nafarroako Parlamentuko Lehendakariak proposatuta, hauxe ERABAKI DA:

1. Mikel Iriarte Cilveti jauna Argitalpen, Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazio Zerbitzuko buru izendatzea.

2. Erabaki hau interesdunari jakinaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko azaroaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **Nafarroako Parlamentuko legelari nagusiaren 39/2021 Ebazpena, azaroaren 8koa, zeinaren bidez kargutik kentzen baita Zerbitzu Orokorretako burua aldi baterako ordeztzen ari den teknikaria.**

Joan den 2017ko irailaren 7an administrazio-kudeaketako maila ertaineko teknikari Sergio Zozaya Garralda jaunak idazki bat aurkeztu zuen Zerbitzu Orokorretako Burutzari uko egiteko, zeina 2012ko abuztutik aitzina betetzen ari baitzen. Legebiltzarreko Mahaiak 2017ko urriaren 9an erabaki zuen haren kargu-uztea.

2017ko urriaren 18an, legelari nagusi Idoia Tajadura Tejada andreak, 34/2017 Ebazpenaren bidez, Zerbitzu Orokorretako administrazio-kudeaketako maila ertaineko teknikari Paulina Cuello Otero andrea izendatu zuen zerbitzu orokorretako buruaren eginkizunak betetzeko ordezkotzat, bitarteko izatearekin.

Nafarroako Parlamentuko administrazioaren antolaketari buruzko Erregelamenduaren 18.1 artikulua xedatzen du Nafarroako Parlamentuko Mahaiak libreki izendatuko duela Zerbitzu Orokorretako burua, Lehendakariak proposatuta, teknikari lanpostua betetzen duten Parlamentuko funtzionarioen artean.

kari lanpostua betetzen duten Parlamentuko funtzionarioen artean.

2021eko azaroaren 8an, Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren erabaki bidez, administrazio-kudeaketako maila ertaineko teknikari Sergio Zozaya Garralda jauna izendatu zen Zerbitzu Orokorretako buru.

Hori horrela, honako hau EBATZI DUT:

1. Nafarroako Parlamentuko Zerbitzu Orokorretako bitarteko buruaren kargutik kentzea Paulina Cuello Otero andrea, eta hari eskerrak ematea eman duen zerbitzuagatik.

2. Ebazpen hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko azaroaren 8an

Legelari nagusia: Silvia Doménech Alegre